



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko azaroaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko azaroaren bian, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IÑARRA François
Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio

Deialdiaren eguna : 2021eko urriaren 29a

Afitxatze eguna : 2021eko urriaren 29a

4.ERABAKIA ESKOLA PRIBATUER EMAN ESKOLATZE PREZIO FINKOAREN ETA DIRU-LAGUNTZEN ADOSTEA

Nomenklatura : 7.5

Auzapezak, Biltzarra informatzen du, Hezkuntzaren Kodigoko L. 442-5 artikulua zehazten duela Ortzaize eta Arrosaren herri arteko elkarte pedagogikoaren (RPI) lurraldean kokatuak diren kontratupeko gelen funtzionamendu gastuak, erakaskuntza publikoko doazkien gelen funtzionamendu gastuen kondizio beretan ordaindu behar direla.

Jaun Auzapezak Biltzarra informatzen du Ortzaize-Arrosa herri arteko elkarte pedagogikoaren (RPI) funtzionamendu gastua 2020-2021 urterako honenbestekoa dela :

- 37 662,13 euro 40 ikasleren eskolatzearendako, erran nahi baitu 941,55 euro haurka Ortzaizeko eskolarendako,

- 9 768,51 euro 31 ikasleren eskolatzearendako, erran nahi baitu 315,11 euro haurka Arrosako eskolarendako.

Auzapez Jaunak proposatzen du diru-laguntzen zamaren kalkulatzea Ortzaizeko kontratupeko eskoletako ama-eskolako haurren egiazko kopuruan baita 1. mailako haurren egiazko kopuruan oinarrituz.

SAN MIXEL ESKOLA

	AMA ESKOLA	1. MAILA	OROTARA
IKASLE KOPURUA 2020KO IRAILEAN	7	15	22
IKASLE BATEN URTEKO GASTUA	941,55 €	315,11 €	
OROTARA	6 590,85 €	4 726,65 €	11 317,50 €

ORTZAIZEKO IKASTOLA

	AMA ESKOLA	1. MAILA	OROTARA
IKASLE KOPURUA 2020KO IRAILEAN	10	11	21
IKASLE BATEN URTEKO GASTUA	941,55 €	315,11 €	
OROTARA	9 415,50€	3 466,21 €	12 881,71 €

Auzapezaren aurkezpena entzunik eta elgarrekin eztabaidaturik, Herriko Kontseiluak

- ERABAKITZEN DU, aho batez, San Mixel eskolari 11 317,50 euroko diru-laguntzaren emaita 2021 urtearentzat,

- ERABAKITZEN DU, aho batez, Ortzaiizeko Ikastolari 12 881,71 euroko diru-laguntzaren emaita 2021 urtearentzat,

- AHALBIDETZEN DU Auzapeza, gai horri doazkion edozein dokumentu izenpetzera eta urratsen eremaitera.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko azaroaren 2an

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,



2021/11/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pasatu ondoan 2021/11/05ean.